

## **Zirriborroaren kultura**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1996-06-02: 3.

Kultura, orokorrean, kontzeptu zabala da. Mintzaira du gehienetan oinarri, eta sinesmenaren zentzu bat, modu askotako ohiturak eta lanerako teknikak; arte-lanaz ere gauza ohi da kultura, noski, besteak beste. Honetxegatik, ezberdintasunak lagun, herriz herri ere bereizten dira kulturak. Balio sistema bat duen herri kultura honek aurkako iraultzailerik ere badu. Artelana bera ezabatzeko asmoa erabiltzen hasi dira batzuk gure herrian grafitiaren zirriborro moderno artistikoen antzera. Alde batetik, artea, zerbait bada, projektatutako lana da, eta artelan berenezkoena ere barrutik landua izan ohi da gehienetan, eta grafitia orokorrean zerbait bada, berenezkoa da, iraultzaren inprontak markatua dator. Sinplifikazio bat egitera nator, agian, baina artelanak, eta batez ere leku berezietan kokatuak, zirriborroz zikintzeak erakusten duen kultura gauza landuaren aurkako zerbait dirudi, eta ez gaitu honek herri bezala balioa duen inora eramango. Mendeku guztiak bezala, minkaitza ea hutsa den zerbaitetara ez bada.